

VITAL FUNDAZIOA EMAKUMEZKOEN EUSKAL PILOTA TXAPELKETAREN OINARRIAK

Antolatzailea: Vital Fundazioa da txapelketaren antolatzailea, eta Araban emakumezkoen kirola sustatzeko duen programaren barruko ekimena da hau.

Helburua: Emakumezkoen kirola sustatzea, batez ere, 9 eta 16 urte bitarteko nesken artean, Vitoria-Gasteizen eta Araban. Emakumezkoen kirola sustatzea, eskolaz kanpoko jarduera den aldetik ez ezik, lanerako irtenbide izan daitekeen aldetik ere, joko garbia eta lehiakortasun osasuntsua sustatuz.

Kategoriak eta adinak: 9 urtetik gorako neskek. Katetoria bi egongo dira: Esku-pilota eta Pala.

Jokalekua: Estadio Fundazioaren instalazioetako trinketean jokatu da (Cervantes ibilbidea).

Osasun estaldura: Ez txapelketaren antolatzaileek, ez ekitaldia egingo den instalazioak, ez dute euren gain hartuko parte-hartzaileen egoera fisikoaren ardurarik, ezta lesio baten kasuan gerta litekeenaren gaineko erantzukizunik ere.

Txapelketaren arauak: Kategorien txapelketa-arauak txapelketan izena eman duen pertsona kopuruaren arabera ezarriko dira.

Sariak: Parte-hartzaile guztiei oparitu zozie motxila bana, edari isotonikoa eta programaren kamiseta. Gainera, txapelketaren irabazleek opari gehigarria eta domina ere jasoko dituzte.